



Zer nahi dute euskaldun hauek baina



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Bada marka, ez dakit mundu osoan beste herri bat izango den euskaldunok beste eskaintza eta proposamen politiko jasotzen duenik. Urte batetik bestera, denetatik eskaintzen digute: autarkia, autonomia, federazioa, konfederazioa, independentzia (*light* zein *heavy*), errepublika adjektibo batez edo bestez hornitua, erresuma historiko berpiztua, foru-kontzertu politikoa... zer dakit nik zenbat formula politiko instituzional saldu nahi diguten, gehienetan kanpotik, noizbehinka etxe barrutik. Benetako eskaintzak dira hauek guztiak, ala beherapenen garaiko salgai-hondarrak dira?

Mamirik gabeko bilgarri dotoreak. Hutsa da horien guztien barrua. Kasu bakan batean ere ez baita, orain arte, formula horietako bakoitzaren barruan zer eskaintzen zaigun zehazten. “Guk erabaki”, esan ohi da. Bai, baina zeren inguruan? Zeintzuk dira benetako aukerak?

Horixe da euskaldunon kezka zehatza gaurko egunean, gure naziotasuna ura eskuko hatzen artean bezala ihesi doala ikusten dugun bitartean. Euskaldunok gure nortasuna galtzen badugu, zer gara. Naziotasun inklusiboa eraikitzen lagunduko digun formula politikoa behar dugu, beraz. Eta aipatu guztien artean, zein da horretara egokitzen dena? Hori xe da argi entzun nahi duguna, ez besterik. Eta inork ez digu berau argitzen.

Euskaldunok gure nortasuna galtzen badugu, zer gara. Naziotasun inklusiboa eraikitzen lagunduko digun formula politikoa behar dugu, beraz

Euskal Herria nazioa da baina, orain arte bederen, nazio nahi eta ezina. Edo zein naziok bizi behar badu, oinarritzko baldintzak behar ditu ezinbestean. Giza komunitate partekatua osatu. Lurralde propio zehaztu bat, ez itxia baina bai errespetatua. Elkarbizitza modu egokian antolatzeke moduko polisistema propio egonkortua. Inguruko nazio eta estatuen ezagutza, onarpena eta errespetua. Eta gurean ez gara oraindik oinarri horietara heldu.

Eskaintza eskuzabalak kanpotik egiten dizkiguten horien artean, batzuek etorkizun oparoaren promesa luzatzen digute, baina baldintza zehatzen pean: “Ez apuritu oraingoa, errespetatu estatua dagoen horretan, eta horren barruan nahi duzuen beste autonomia izango duzue, beti ere estatu-nazioaren agindu nagusiak gordez”. Baina agindu nagusi horiek dira, hain zuzen ere, euskal

naziotasuna desegitera daramatenak. Ikusi, adibide moduan, EAerako hezkuntza lege berriaren inguruan piztu den eztabaidan, euskararen gainean sortu den eztabaida. Euskararentzat murgiltze-sistema ez dute aipatu ere nahi oraingo estatu/status zaleek. Ez omen da “politikoki zuzena” bertoko alderdi instituzionalen iritzian. Beraz, legebiltzarrean ez omen du inork euskararen aldeko murgiltzea defendatuko. Hara! Eta bitartean gaztelera/frantsesean majo “murgiltzen” gaituzte ba euskaldunok ipar-hego! Konstituzio espainiarrak dakarren gaztelera jakiteko agindu hori (“*deber de conocer*”), ze murgiltze klase demokratiko da, bada? Euskarari bertan ez dagokio pareko egoerarik?

Etxean bertan, independentzia edo euskal errepublika konfederala eskaintzen digutenek argitu beharko ligukete bide horretan zer eta nola jokatu behar dugun euskal nazioa osatu eta sendotzeko, ez dakigun gerta, adibidez, errespetu osoz esanda baina, irlandarrei gertatzen ari zaien modura, estatu independente batua lortzeko bidean, nazioa bera galdu eta maizegi lehengo metropoliaren irudiko gertatzen den nitasun gabeko nortasun klonatua suertatzea.

Euskal Errepublika nahi dugu euskaldunok, ene aburuz. Estatu beregaina, baina euskal nazio antolatu demokratiakoaren oinarrietan finkatua. Horixe nahi dugu. ●